

Kirol Hezitzailea: balizko onurak eta errealitateko arriskuak

(Sport-education: theoretical benefits and risks associated with their practice)

Zulaika Isasti, Luis M.

UPV/EHU. Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzien Fak. Lasarteko bidea, z/g. 01007 Gasteiz
luism.zulaika@ehu.es

BIBLID [1137-4447 (2006), 15; 113-121]

Jaso: 06.10.23
Onartu: 06.11.24

Askotan entzun dugu kirola hezitzailea dela. Izan ere, jarduera honi esker balio ugari landu daitezke. Baina egunerokotasunak azaltzen digu oso pedagogikoak ez diren hainbat egoera sortzen direla bertan, eta kasu guztietan partaide ororentzat ez dela beti formatzaile bihurtzen jarduera hau. Onura horiek jaso ahal izateko antolaketak izan beharreko irizpideen inguruan hainbat gogoeta plazaratuko ditugu.

Giltza-Hitzak: Eskola kirola. Balioen heziketa. Gorputz hezkuntza. Kirol hezitzailea.

En muchas ocasiones hemos escuchado que el deporte es educador. Ciertamente, gracias a esta actividad se pueden cultivar muchos valores. Pero la actividad cotidiana nos muestra que en su práctica surgen situaciones que no son muy pedagógicas, y que esta actividad no resulta formativa siempre ni en todos los casos. Haremos públicas algunas reflexiones sobre los criterios que habrán de regir su organización para poder alcanzar dichos beneficios.

Palabras Clave: Deporte escolar. Educación en los valores. Educación física. Deporte educativo.

Dans de nombreuses occasions nous avons entendu que le sport est éducateur. Certainement, grâce à cette activité on peut cultiver de nombreuses valeurs. Mais l'activité quotidienne nous montre que dans la pratique surgissent des situations qui ne sont pas très pédagogiques, et que cette activité n'est pas toujours formative, ni dans tous les cas. Nous rendrons publique quelques réflexions sur les critères qui devront gouverner leur organisation pour pouvoir obtenir ces bénéfices.

Mots Clés: Sport scolaire. Education dans les valeurs. Education physique. Sport éducatif.

1. SARRERA

Badirudi kirolari betidanik aitortu izan zaiola, eragin hezitzailea. Greziako gimnasio eta palestren garaira jo gabe, honen adibide eta lekuko ugari ditugu. Europan bertan hainbat egile nabarmendu izan dira ekarpen hau azpimarratzerakoan: Thomas Arnold (1795-1824) Erresuma Batuan kirola eskoletako curriculumetan xertatuz, Henrik Ling (1776-1839) eta bere gimnasia suediarra Europako derrigorrezko hezkuntza sistemetara zabalduz, Pierre de Coubertin (1863-1937) kirola eta olinpismoaren giza balioak munduan hedatuz...

Historian zehar izan diren hainbat pedagogo eta psikologo ospetsuk jolasak (kirolaren aurreurratsak, alegia) haurraren garapenean duen eragin positiboa eta garrantzia azpimarratu dute, Lopez de Sosoagak (2005) egoki asko jasota bezala.

Herritarrek kirol zaleen ezaugarriei buruz iritzi hau omen dute: ohitura osasuntsuak, drogarik gabekoa, nortasuna orekatua, borondate indar handia, porrotari aurre egiteko gaitasuna, arau sozialak errespetatzea (Chamarro, 1998).

Kirol jardueraren eragin hezitzaile, altruista eta gizarte kohesioaren indartze funtzio hau bermatze aldera nazioarteko administrazioek bultzatutako hainbat ekimen aipa ditzakegu: NBEko Batzar Nagusiak (2003) "heziketa, osasuna, garapena eta bakea sustatzeko bitarteko" gisa onartzen du kirola; Estrasburgoko legebiltzarrak 2004a "kirolaren bidezko heziketaren urte europarra" izendatu zuen; NBEko idazkari nagusiak (2005) "Heziketa Fisikoaren eta Kirolaren Nazioarteko Urtea" izenburupean hautatu zuen.

Jarduera fisiko, jolas eta kirolen presentzia nabarmena aurki dezakegu Herrialde guztietako hainbat esparrutan: Derrigorrezko Hezkuntza Sistemak, eskola-ordutegiz kanpoko ekintza osagarrietan, drogamenpekotasunaren aurkako prebentzio plangintzetan, kale-hezitzaileen gidaliburuetan, etorkinak integratzeko egitasmoetan, indarkeriaz baliatzen diren muturreko gazteen taldeekin lan egiterakoan... Benetan onartua dago kirol jarduerak banakoaren izaeraren prestakuntzan duen eragin hezitzailea (Seirul-Lo, 1992; De Andres y Aznar, 1996; Fraile, 1999; Zulaika, 1999; Vazquez, 2001) bai eta bere garapen etiko eta moralean ere (Gonzalez, 1993, 1999; Gzlez. Aramendi, 2004; Velazquez, 2002) zein trebetasun sozialen eremuan (Dias et al., 2000; Vizcarra, 2004; Escartí, 2005).

Estatu espainiarreko hainbat Autonomia Elkarreketan (Extremadura, Murtzia, Madril, Herrialde Katalanak), kirolak duen garrantzi hezitzailearen jakitun, azken urteotan legeria berria sortu dute herritar gazteek kirol hezitzailearen onurak jaso ditzaten. Administrazioak bermatuko du derrigorrezko eskola ordutegitik harago heziketa eremuko prestakuntza akademikoa duten profesionalak aritzea kirol jarduerak eskaintzen hala aukeratzen duten ikasle guztiei. Beraz, orain arte boluntarioen esku (eta zenbait kasutan prestakuntza pedagogikorik gabeak) zegoen jarduera bati, benetan duen izaera hezitzailea onartzen zaio eta ondorioz, behar adinako aurrekontua esleitzen zaio.

2. KIROLAREN ERAGIN HEZITZAILEA

Kirol jarduerak nolabaiteko onurak eragiten dituela, baliotan hezteko lanabes baliagarria dela gizartean erruz sustraitutako mezua dugu. Autore ugari horrela aldarrikatu dute gainera (Diaz et al., 1999; Torregrosa y Martin, 2000; Maza, 2001; Prat i Grau, 2001; Carranza y Mora, 2003; Gutierrez, 2003).

Artikulu honen mugak kontuan izanik, ez dugu azalpenetarako betarik. Sakondu nahi duenak besteak beste Zulaikara (2004) jo dezake.

Koadro 1. Kirolaren bidez landu daitezkeen balioak

Kiroltasuna, joko-garbia	Errespetua
Taldelana, lankidetzeta	Hierarkia printzipioa onartu
Talde interesak norberarenen aurretik ipintzea	Ardura
Hobetze sena	Kode etikoa
Esfortzuaren kultura	Sariak gerorako uzteko ahalmena
Borondatea, kemena	Emaitzak onartzen ikasi
Autodiziplina	Bizitzarako eskola
Autokontrola	Frustraziorako tolerantzia handitu

3. BETI AL DA HAURTZAROKO KIROLA HEZITZAILEA?

Dena den, azaldutako balio hezitzaile hauek guztiak kirol jarduerari esker landu badaitezke ere, garbi izan behar dugu beti ez direla eskuratzen. Eguneroko errealtateak azaltzen digu, jarduera bera maiz ez dela hain arrosa kolorekoa izaten. Ikusten dugu antolatutako aktibitate horiek ez direla parte hartzen duten haur guztientzako beti hain positiboak eta onuragarriak gertatzen.

Kirolak berez, edozein modutara buruturik ez duela ziurtatzen kasu guztietan jarduera formatzailea eta hezitzailea izango denik. Kirolak heziketarako duen potentzial hori egon hor badago ere, aditu ugari (Frattarola, 1989; García Ferrando, 1990; Barbero, 1992; Dominguez, 1995; Cruz, 1996, 2001; Contreras, 1997) aipatzen dute haurtzaroko kirol jarduera bi aurpegiko txanpona dugula, hau da, eragin desberdinak sorrarazi ditzakeela.

Kirol jarduera hori antolatzerakoan aintzakotzat hartutako irizpide, ikuspegi eta helburuek baldintzatuko dute parte hartzaileek jasoko dituzten ondorioak. Berez, gaitasun hezitzaile potentzial hain handia duen jarduera honek baditu praktikan gaingaitu beharreko hainbat arrisku eta aldagai kaltegarri, irizpide pedagogikoetatik baloratuta, beti ere. Azter ditzagun bada.

3.1. Gehiegizko lehiakortasuna

Ezinbestean irabazi beharra eta emaitzari gehiegizko garrantzia ematea litzateke zerrenda honetako argudio nagusienetakoa. Kirolaren berezko ezaugarria da norgehiagoka, dema eta besteari aurrea hartu nahi izatea. Hala eta guztiz ere, osagai naturala den hori bere neurrian mantenduz osasungarria dena, muturreko neurritara eramaten denean gehiegizko bihur daiteke.

Konpetitibitate ezaugarri hau, behar den mailan bideratuta haurren parte hartzea sustatzeko eta hauek motibatuzeko egokia izan daiteke. Kooperazio-lehiakortasun harremana modu orekatuan uztartzen asmatuz gero.

Gaur egun gure artean garatu diren kirol ikuspegi desberdinen artean esan daiteke kirolaren izaera lehiakorra neurritz kanpo puztu egin dela, kirolak dituen beste hainbat eremu itzalpean utzi dituelarik. Horien artean, besteak beste: aisialdiko kirola, osasuntsua, partehartzailea eta giza harremanak sendotzea indartzen dituztenak aipa genitzake. Badirudi kirola eta lehia bat egitera iritsi garela. Ezin dezakegula bata bestea gabe ulertu.

Emaitza, irabazi ala galtzea, garai batean jolasaren osagai bat gehiago besterik ez zen. Egun, ordea, badirudi garrantzia duen atal bakarra bihurtu zaigula. Balioen eskalaren aldaketa hau ulertzeko garaian kontuan izan behar dugu egungo gizartean konpetitibitatea alor guztietan balio gorentzat ezarria dugula.

Emaitzari gehiegizko garrantzia eskaintzeak eta satisfazio iturri gisa, balorpen positiborako garaipena soilik ezartzeak: frustrazio, dezeptzio, atsekabe eta porroteko sentsazioak eragin ditzake. Sentimendu negatibo hauek nortasunaren beste eremuetara zabaldu egiten dira kasu askotan. Hau da, ondorioa ez dela mugatzen kirolari moduan bere buruaz ikuspegi eskasa izatera; pertsona gisa oro har, frakasatua sentitzera baizik. Bere buruari ezarritako helburuak eskuratzera iritsi ez den pertsona.

Irizpide pedagogikoetan oinarrituta, begi bistakoa da ez dela egokia gehien-goarentzat eskuraezinak diren helburuak ezartzea. Kasu hauetan, nahiz eta gogor saiatu, beraien gaitasun eta ezarritako helmugan arteko desorekak direla medio ezinezko gertatuko zaie maila horietara iristea. Ez da zilegizkoa kirol jarduerak nortasunaren prestakuntzan laguntzen duela esan, onura psikologikoak eragiten dituela, eta gero parte hartzaileen gehien-goarentzat frustrazio eta porroteko egoerak eragin. Irabazle bakarria eta galtzaile ugari izatea; edo aurkariaren porrota norberaren arrakastarako ezinbesteko izatea, ezaugarri desegokiak ditugu irizpide hezitzailearen arabera.

3.2. Helburu desegokiak

Xede hezitzaileekin antolatutako kirol jardueretan kontu handiz zaindu behar dugu zein helburu eta motibazio dituzten parte hartzen duten agente desberdinek.

Zenbait kasutan batetik helmuga oso zorrotzak edota altuak ezarri ohi dira, (eta bestetik ez lortzea erabateko porrotarekin lotu): garaipena, titular izatea,

sailkapeneko lehen postua, selekziorako txartela... Komenigarria litzateke gure esku dauden helburuak finkatzen ikastea; eta ez besteen jardueraren menpe daudenak. Norbere hobekuntzara, ikastera, gozatzerantz bideratutako motibazioan oinarritzea, *eginkizunera zuzendutako* motibazioa; eta ez egorantz (Arruza, 2002) zuzendutakoa, hau da, emaitza, garaipena, besteekiko errendimendua. Gutxi batzuen esku bakarrik dauden aukerak guztiei helburu gisa ezartzeak epe luzera dezepzionatutako talde zabala ereitea suposatzen du.

Kiroleko goi mailako izarren bertute, ondorio positibo eta alderdi on guztiak saltzen dizkigute etengabe; baina ezkutatu egiten digute egoera horren atzealdea. Ez dakigu bere garaian ospe izugarri hori ezagutu zuen hainbat jende nola bizi den egun; baina batez ere, gailurrerako bidean gelditutako haur andana horrekin zer gertatu den. Hau da, ume kopuru izugarria abiatzen da lasterketa horretan, egunen batean beren ametsetako maila hori lortze aldera, baina lekua oso oso gutxientzat soilik dago ordea.

Haurra, haurra den heinean, ulergarria da miresten duen izar hori imitatzen saiatzea, baina iritsiko da momentu bat non jabetuko den bera ez dela inoiz iritsiko ezarrita zituen helmuga horietara (estatistika legeen arabera kasu gehienetan). Helduok desoreka horren berri badugunez (eskaera eta eskaintzaren artekoa) helburu errealistak ezartzen lagundu behar diegu. Goi mailako kirola lagungarri da haurren motibazioa eta parte hartzea sustatzeko, baina haurrari lagundu egin behar zaio bere itxaropenak egokitzen; aurrerago hain zabalduak diren porrotezko sentimendu horiek saihesteko.

3.3. Ingurunekeo gehiegizko presioa

Kirol jarduerak parte hartzen duten haurrengan izango duen eragina, bereziki arlo psikologikoan, aktibitate horren inguruan eraturako giro sozialaren menpe egongo da. Giza elkarrekintza neurri handian entrenatzaileak, publikoak, familiarak eta lagunek (Buceta, 2001) baldintzatzen dute.

Kirol txapelketetan bizi den giroan maiz gehiegizko presioa egon ohi da, errendimenduzko itxaropen altuegiak ezartzen dira (nahi eta ez irabazi beharra, zerbaitetan), eta honek parte hartzen duen haurrari nolabaiteko barne gatazka sortzen dio. Egoera honen adierazleen artean estresa, ziurgabetasuna eta zalantza, egonezin psikikoa, eta herostura aurki ditzakegu. Kontuan izan behar dugu adin hauetan haurrek zer-nolako garrantzia eskaintzen dieten kirol trebetasunei; eta bestetik, kanpoko eraginen aurkako sentiberatasuna.

3.4. Konparaketa soziala

Kirol lehiaketak zorrotzasun handiko ebaluaketa soziala eragiten du. Ondorioz, autokontzeptuaren garapenean eragin adierazgarria izan dezake (Zulaika, 1999). Bestalde, besteek egindako balorapen hau garapen psikoafektibo bereziko aro batean gertatzen da: jarduera fisikoetan trebea izateari garrantzi handia eskaintzen zaion unean; eta kanpoko mezuekiko oso sentiberak diren garaian. Eragin negatibo hau nabarmenagoa izango da batez bestekoa baino maila eska-

sagoa dutenen artean. Esparru desberdinetan eragingo du: eskolako eginkizunetarako duen motibazioa, izaera, nortasuna, harremanak, bere buruaren onarpen maila...

3.5. Espezializazio goiztiarra

Maiz kritikatu izan da haurrak kirol edo postu zehatz bakarrean aritzea, pertsonaren aberastasun motorea mugatzen duelako, bai eta etorkizunerako kirol ohitura anitzak garatzeko aukera ere. Era berean, momentuko errendimenduari eta emaitzari soilik lehentasuna eskaintzea ez dirudi adin hauetarako helbururik egokiena denik, ikuspegi hezitzailetik aztertuta behintzat.

Hautzaroan haurraren garapen psikomotorea bere osotasunean jorratu beharko da. Oinarrizko trebetasun motore hauek ondo landuta izateak oinarri sendoa emango die etorkizunerako. Modu honetan garapen orekaturako zuta-beak bermatzen dizkiogu etorkizunari begira. Kirolari hori gai izango da aurrerantzean edozein kirol jarduerara egokitzeko.

3.6. Aukeratze prozesuetarako irizpide zorrotzak

Norberak dituen gaitasunak ezagutzea eta baloratzea bizitza osoan zehar egin beharreko prozesu luzea dugu. Haurrak oraindik egonkortasun psikoafektibo egokirik eskuratu ez duen garaian ondorio sakonak eragin ditzakete hainbat gertaerek. Eragin hori baloratzeko garaian kontuan izan beharko dira zein unetan gertatu den eta zein testuingurutan. Bi aldagai horiek baldintzatuko dute neurri handi batean aipatutako eragina. Hautaketa errendimenduko irizpideetan soilik oinarritzen denean heziketa giroa kaltetu egiten da. Lehiaketara zuzendutako entrenamenduan gaitasun eskaseko haurrak lehenago baztertzen dira (eta jarduera utzi egiten dute).

Hainbat erakunde pribatu eta kirol elkarte gero eta goizago joaten dira ikastetxeetara haur bila. Oso adin txikiko umeak aukeratzen dituzte, gaitasun onena dutenak hain zuzen ere. Haur kopuru urria aukeratu arren, erabaki horrek eragin nabarmena izaten du beste guztiengan, izan ere, autoestimua eta kirolean jarraitzeko motibazioa, oro har, erabat jaisten zaie. Gertaera hauen emaitza benetan larria izan ohi da: partaidetza izugarri jaisten dela, zenbait kasutan hutsaren hurrengo izateraino aukeratuak izan ez direnen artean. Behera-kada hau taldeko kiroletan taldeak osatzeko izaten diren zailtasunetan azaleratu ohi da.

Bestalde, kontuan izan behar dugu aukeratuak izan direnekin ere kasu gehienetan gauza bera gertatuko dela, hau da, kanporatuak izango direla. Adinean aurrera doazen heinean gero eta kopuru urriagoekin lan egin ohi dute kirol erakundeek eta maila ematen ez dutenak baztertuak izaten dira. Gutxi batzuen balizko onurek ez dute justifikatzen gehiengoarentzat kaltegarriak diren neurriak.

4. ONDORIOAK

Kirol jarduera onura fisiko, psikologiko, sozial eta hezitzaile ugariren iturri izan daiteke. Komunitate zientifikoan erabat onartutako baieztapena dugu hau. Gure gazteak eta belaunaldi berriak balioetan hezteko aukera paregabea eskaintzen digu kirolak, bereziki kontuan izanik egungo gizartean zein ezaugarri gorai patzen diren: pertsonak emaitzaren arabera baloratu, itxuraren garrantzia puztu, berehalako arrakasta bilatu, norberaren interesez arduratu, unean uneaz gozatu etorkizuna eta besteez kezkatu gabe...

Baina ez dugu ahaztu behar eragin positibo hori lortzeko baldintza batzuk errespetatu beharko direla: besteak beste, antolatzaile eta hainbat eragilek jarduera horri eskaintutako ikuspegia eta helburua. Ildo horretan ere eragin nabarmena izango dute pertsona esanguratsuek, hala nola, entrenatzaileek (Seirul-Lo, 1992; Cruz et al., 1996), gurasoek (Gimeno, 2000; Peris, 2003; Roffé et al., 2003) eta lagunek (Hernández, 2002; Gutiérrez, 2003) hainbat adituk dioten bezala.

Garbi izan behar dugu oraindik leku askotan zabaldua dugun ereduak ez duela bermatzen gure gazteek etorkizunean bizi-ohitura gisa jarduera fisikoeikiko zaletasuna bereganatzea, eta aztura horiek albo batera uztera bultzatzen dituela (Telama, 1985; García Fernando, 1990). Errealitatean jasotako emaitza honek bultzatzen gaitu eskolan guztiontzako kirola aldarrikatzera, txapeldunak sortzera baino gehiago, guztien partaidetza bilatzen duena, eta gaitasun eskasekoak baztertzeko ez dituen.

Baloratu egin behar dugu ea txapeldun gutxi batzuk lortzearren pertsona gisa frakasatu eta frustratutako multzo handiak sortzeak pena merezi duen. Kirol eremuan jasotako dezepzioak nortasunaren beste eremuetara zabalduta daitezke. Kirol jarduera gorrotatzeaz gain, autoerrealizatu gabeko pertsonak sor daitezke, autokontzeptu orokor baxua dutenak. Une oro kontuan izan behar litzateke zein pertsona multzora zuzentzen diren jarduerak horiek eta zein ondorio eragin ditzaketen.

Beraz, azaldu diren onurak kontuan izanik, eta kirol jarduera orok ondorio horiek bermatzen ez dituela kontuan izanik uste dugu eredu hezitzailearen aldeko apustua egiteko nahikoa argudio badirela. Hau da, bere ikasgelako kide naturalekin batera, denentzat parte hartze irekikoa, eskolaren ardurapean (helburu hezitzaileak bermatzearen), izaera ludikoen bidez gozatuz, gaitasunak osotasunean garatzeko jarduera anitzak landuz, heldutasunerako bizi-ohitura osasuntsuak sustatuz.

Haurtzaroan ezaugarri hauetan oinarritutako eredu bateratuan aritu ondoren, gerora eskaintza zabaldutako litzateke. Gehiengoak barneratutako kultura eta ohitura horiei eutsiko lioke, eta parte hartzeko ikuspegiekin jarraituko luke. Gaitasun eta zaletasun maila handia dutenek, beste helburu eta intentsitate batez aritzeko aukera izango dute, lortu duten oinarriak horretarako aukera bermatuko baitie. Gaitasun aparta dutenen bidea ere ahalbidetuz. Interes desberdinak

uztarten dituen antolaketa honek denen onespena jasotzeko arazorik ez luke izan behar, gure ustez. Gure belaunaldi gazteen etorkizunak hainbeste merezi du eta.

BIBLIOGRAFIA

- ARRUZA, J. A. *Nuevas perspectivas acerca del deporte educativo*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002.
- BARBERO, J. I. (1992). "En torno a la concepción idealista del deporte educativo". En: *Revista interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 15.
- BUCETA, J. M. *Estrategias psicológicas para entrenadores de deportistas jóvenes*. Madrid: Dykinson, 2000.
- CARRANZA, M. y MORA, J. M. *Educación física y valores: educando en un mundo complejo: 31 propuestas para los centros escolares*. Barcelona: Graó, 2003.
- CONTRERAS, O. "El Deporte Educativo (I). Algunas controversias sobre el carácter educativo del deporte". En: *Revista de Educación Física*, 61, 1997; pp. 5-9.
- CRUZ, J. et al. "¿Existe un deporte educativo?: papel de las competiciones deportivas en el proceso de socialización del niño". En: *Revista de Psicología del Deporte*, 9-10, 1996; pp. 111-132.
- CRUZ, J. et al. "¿Se pierde el fairplay y la deportividad en el deporte en edad escolar?" In: *Apunts*, 64, 2001; pp. 6-16.
- CHAMARRO, A. et al. "La práctica de ejercicio en las prisiones: factores asociados a la iniciación y el mantenimiento". En: *Revista de Psicología del Deporte*, 13, 1998; pp. 69-91.
- DE ANDRES, B. y AZNAR, P. "Función educativa de la actividad física y deportiva". En: *Revista de psicología del deporte*, 9-10, 1996; pp. 41-49.
- DIAS, C. et al. "El deporte como contexto para el aprendizaje y la enseñanza de competencias personales". En: *Revista de Psicología del Deporte*, 9(1-2), 2000; pp. 107-122.
- DÍAZ, S. et al., *Baloretan heztea gorputz hezkuntzan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1999.
- DOMÍNGUEZ, J. L. *Reflexiones acerca de la evolución del hecho deportivo*. Donostia: EHU, 1995.
- ESCARTÍ, A. *Responsabilidad personal y social a través de la educación física y el deporte*. Barcelona: Graó, 2005.
- FRAILE, A. *Actividad física jugada. Una propuesta educativa para el deporte escolar*. Alcoy: Marfil, 1992.
- GARCÍA FERRANDO, M. *Aspectos sociales del deporte*. Madrid: Alianza, 1990.
- GIMENO, F. *Entrenando a padres y madres*. Zaragoza: Gobierno de Aragón, 2000.
- GONZÁLEZ, F. J. *Educación en valores a través del deporte*. Madrid: YMCA-Instituto de la Juventud, 1999.
- GONZÁLEZ, F. *Educación en el deporte. Educación en valores desde la educación física y la animación deportiva*. Madrid: CCS, 2001.
- GONZÁLEZ ARAMENDI, J. M. et al. *Bost urte, bizitza osoa. Jarduera fisikoa eta ohitura osuntsuak nerabezaroan*. Donostia: Erein, 2004.

- GOÑI, A. y ZULAIKA, L. M. "La participación en el deporte escolar y el autoconcepto en escolares de 10 a 11 años de la provincia de Guipúzcoa". In: *APUNTS*, 59, 2000; pp. 6-10.
- GUTIÉRREZ, M. *Manual sobre valores en educación física y el deporte*. Barcelona: Paidós, 2003.
- MACAZAGA, A. "El modelo de deporte escolar en el Plan Vasco de Deporte". En: A. Fraile (Coord.). *El deporte escolar en el siglo XXI: análisis y debate desde una perspectiva europea*. Barcelona: Graó, 2004; pp. 171-182.
- MAZA, Gaspar. "Valores del deporte desde el ámbito de la educación social". En: *Tándem*, 2, 2001; pp. 63-73.
- PERIS, D. *Los padres son importantes... para que sus hijos hagan deporte*. Castellón: Fundación C.D. Castellón, 2003.
- PRAT I GRAU, M. (2001). "Actitudes, valores y normas en educación física. En: *Tándem*, 2, 2001; pp. 7-20.
- ROFFE, M.; FENILI, A. y GISCAFRE, N. *Mi hijo el campeón. Las presiones de los padres y el entorno*. Buenos Aires: Editorial Lugar, 2003.
- SEIRUL-LO, F. "Valores educativos del deporte". En: *Revista de educación física*, 44, 1992; pp. 3-11.
- TELAMA, R. "Aspectos pedagógicos del deporte para la juventud". En: *Dirección Deportiva*, 28, 1985; pp. 21-26.
- TORREGROSA, M. y MARTÍN, L. "El estudio de los valores en psicología del deporte". En: *Revista de Psicología del Deporte*, 9 (1-2), 2000; pp. 71-83.
- VÁZQUEZ, B. *Bases educativas de la actividad física y el deporte*. Madrid: Síntesis, 2001.
- VELÁZQUEZ, R. "Educación deportiva y desarrollo moral: algunas ideas para la reflexión y para la práctica". En: *Tándem*, 7, 2002; pp. 7-20.
- VIZCARRA, M. T. *Análisis de una experiencia de formación permanente en el deporte escolar a través de un programa de habilidades sociales*. Bilbao: UPV-EHU, 2004.
- ZULAIKA, Luis M. *Heziketa fisikoa eta autokontzeptua*. Doktorego tesia. Leioa: EHU, 1999.
- ZULAIKA, L. M. (editorea). *25 Arrazoi kirola egiteko. Onura psikologikoak, sozialak eta balio hezitzaileak*, 2004.